

2017KO MARTXOAREN 7AN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamazazpiko martxoaren 7a izanda, arratsaldeko zortziak eta bost zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen otsailaren 14ko ohiko bilkuraren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
15	2017/02/10	GAINBALIOEN LUZAPENA ONARTZEA
16	2017/02/10	POLIKIROLDEAREN ONDOKO LURZATIA EROSTEA
17	2017/02/13	OKUPAZIO-LIZENTZIA EMATEA HARRI-LUBETA EGITEKO ARRABAL KALEAN
18	2017/02/15	OBRA-LIZENTZIA EMATEA FATXADA MARGOTZEKO ERMITAKO ERREPIDEAN
19	2017/02/15	OBRA-LIZENTZIA EMATEA ESTALDURA ETA FATXADA BIRGAITZEKO SOL DE ARRIBA KALEAN
20	2017/02/15	OBRA-LIZENTZIA EMATEA TRONADURA BIRGAITZEKO SAN VICENTE MARTIR ELIZAN
21	2017/02/16	OBRA-LIZENTZIA EMATEA GALDARA ALDATZEKO LA VILLA KALEAN
22	2017/02/20	OBRA-LIZENTZIA EMATEA HORMIGOIZKO ZOLATA GAUZATZEKO 3759 LURZATIAN
23	2017/02/23	AFAKO EUSKARA ARLOKO DIRU-LAGUNTZETAN PARTE HARTZEA
24	2017/02/24	GAINBALIOEN LUZAPENA ONARTZEA
25	2017/02/27	BANKU TRANSFERENTZIA
26	2017/02/28	IBILGAILUEN ZERGA-HOBARIA EMATEA
27	2017/02/28	IBILGAILUEN ZERGAREN ZATIA ITZULTZEA BAJAN EGOTEAGATIK
28	2017/02/28	OKUPAZIO-LIZENTZIA EMATEA

29	2017/02/28	OBRA-LIZENTZIA EMATEA TXIMENEA KONPONTZEKO ARRABAL KALEAN
30	2017/02/28	OBRA-LIZENTZIA EMATEA BARNEALDEA EGOKITZEKO IMPERIAL KALEAN
31	2017/03/01	KREDITUA TXERTATZEKO ESPEDIENTEA
32	2017/03/02	AFAKO KIROL ARLOKO DIRU-LAGUNTZETAN PARTE HARTZEA
33	2017/03/02	2017KO MARTXOAREN 7AN OSOKO BILKURA DEIALDIA

3.- KANPEZUKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, diru-laguntzak eman nahi dituzten herri administrazioetako organoek diru-laguntzen plan estrategikoa onartu behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: dirulaguntzen helburuak eta haien bitartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epealdia, aurreikusten diren kostuak, eta finantzabideak. Plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Indarrean dagoen plana aldatu beharra ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legean jasotako eskuduntzak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute.

LEHENA.- Kanpezuko Udalaren 2016-2018 epealdirako diru-laguntzen plan estrategikoa aldatzea.

BIGARRENA.- Oraingo akordioa argitaratzea ALHAOn, Iragarki taulan eta udal web-orrian, www.campezo.eus

Eranskina

434002	EIT DELA ETA ZAHARBERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAK	2.000,00
480001	JAIOTZAGATIKO DIRU-LAGUNTZAK (zenbatekoaren aldaketa)	3.000,00

Une honean, Alkateak aurreko ekitaldiari dagozkion diru-laguntzak adierazi ditu, plan estrategikoan zehaztu bezala.

4.- KULTURA, KIROLA ETA EUSKARA ARLOETAKO 2017KO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTZEA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

ALHAO 63. zenbakian, 2010eko ekainaren 9an, argitaratu zen diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza ikusirik.

Azaroaren 17ko, 38/2003 Diru-laguntzen Legeak, berau garatzeko araudiak eta aurrekontua betearazteko arauak jasotzen duten deialdi publikoa egiteko beharra ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute.

LEHENA.- Kultura, kirola eta euskara arloetako 2017ko diru-laguntza deialdia onartzea.

BIGARRENA.- Oraingo akordioa argitaratzea ALHAOn, Iragarki taulan eta udal web-orrian, www.campezo.eus

5.- ADMINISTRAZIO BATZARRETARAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTZEA, EGOKIA BADA

ZIOEN AZALPENA:

Funtzionamendurako gastu orokorrak eta tokiko jaiak finantzatzeko Kanpezuko administrazio batzarretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak ikusirik.

Azaroaren 17ko, 38/2003 Diru-laguntzen Legeak, berau garatzeko araudiak eta aurrekontua betearazteko arauak jasotzen duten deialdi publikoa egiteko beharra ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute.

LEHENA- 2017an, Funtzionamendurako gastu orokorrak eta tokiko jaiak finantzatzeko Kanpezuko Administrazio Batzarretarako diru-laguntza deialdia onartzea.

BIGARRENA- Oraingo akordioa argitaratzea ALHAOn, Iragarki taulan eta udal web-orrian, www.campezo.eus

6.- MARTXOAREN 8A DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, EGOKIA BADA.

MARTXOAK 8: ORDEZKARITZA OREKATU BATERAKO 8 PRINTZIPIO

Emakume gutxi daude ordezkaturik udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoak aurre egin behar izaten diete¹. Hori jaso zuen Inger Lingek¹ Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonak tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte". Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkaten dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

¹ Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariirik, eta erabakitzeko organo garrantzitsuenetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

Egoera horren JAKITUN, Kanpezuko Udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kotsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikotik izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuak edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemak bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jasotzea, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeak eskolak programan parte har dezaten ahalbidetzea.
6. Udalerriko emakumeen ahalduak eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoen taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
8. Udaletako berdintasun sailtan eta gainerako udal sailtan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

Bozkatu eta aho batez onartu da.

7.-LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK.

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bilerraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotziak, iñauterien balorazioa oso positiboa izan dela adierazi du. Izan ere, larunbatean, haurrentzako jaia egin zen; ondoren, 100 herritar baino gehiago elkartu ziren afarian; eta Toribion, partehartze handia izan zen –aurtengo berritasuna izan da ikastolara joan dela-.

Sukaldaritza ikastaroa amaitu da dagoeneko, eta parte hartzaileei gogobetetasun inkesta pasa zaie, oso emaitza positiboarekin.

Korrikari buruz, aurreko asteburuan Korrika Kulturalaren lehenengo hitzaldia egin zela aipatu du. Ekitaldi horien barruan, martxoaren 12an, Pirritx eta Porrotxen emanaldia egingo da, eta zenbait ekintza Orbison eta Santikurutzen. Eta esan bezala, martxoaren 31an, goizaldeko 6:00etan herria gurutzatuko du.

Martxoaren 24an, haur saharaiarrekin oporrak bakean programaren lehenengo bilera egingo da udan haurrak abegi-familietan hartzeko.

Liburutegian, IGO programa egingo da, eta berritasun bezala, hileroko egile baten biografia egingo da haren liburuak gomendatzeko, gaztelania eta euskara tartekatuz.

Herrador jaunak galdetu du ea sukaldaritza tailerrean defizita egon den, eta baietz erantzun diote, 180 euro inguru.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, aurreko astean, zurrumurruen aurkako kanpainako bilera egin zela adierazi du; programa horren norabidean lan egiten lagunduko dutela apirilaren 5ean bigarren bilera deituz.

Kartelen lehiaketari buruz, irabazlearen irudia erabili da bihartik aurrera banatuko diren pegatinetan.

Kontsultoria egikaritze-epea betetzen ari da, eta maiatzaren amaieran eraikina amaituta egongo da. Ekainean, lehenengo probak izango dira, garai horretan ekipamendurako lizitazioa egin ahal izateko.

Martxoaren 8an, Asociación de la mujer campezanak bazkaria antolatu du 15etan Iturrienean, eta arratsaldean, elkarte berak deituta, plazan, esandako elkarteak, Aguakék, gazte asanbladak eta Udalak deitutako elkarretaratzea egingo da.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza Zinegotziak, Izki Parke Naturalaren patronatoaren batzarra otsailaren 17an bildu zela adierazi du. Bertan lau txostenen inguruko ekimenak aurkeztu ziren erle beltza parkean ezartzeko proposamenarekin.

Otsailaren 15ean, Ingurumen Sailekoak hondakin organikoak biltzeko azken fasea aurkeztera etorri ziren. Azkenik, Kuadrillaren bidez egingo da, baina zenbait aukerei buruzko informazioa jaso da. Herrador jaunak adierazi du konpostajea egiteko hiru aukera egon daitezkeela: indibiduala, taldekoa eta abeltzainena; eta, antza denez, aurtengo diru-laguntza handiagoa izango da.

Vasco-navarroaren bideari buruz, Oteorako bidegurutzean seinaleak jartzeko eskatu zen, eta, horretaz gain, bankuak jarriko dira eta errepidea partxeatuko dira; lehenengo lanak egiteko daude.

Garcia de Acilu zinegotzi jaunak eta EAJko udal taldeak eskatuta, Berguillako areken garbiketen gastuak zerrendatu dituzte.

Haren hitzaldiarekin jarraitzeko, Ruiz de Loizagak galdetu nahi dio EAJko udal taldeari, Berguillarekin erlazionatuta, zenbateko izan da araztegiaren abiatzea,

zenbatekoa izan den araztegiaren funtzionamendua, eta Poligonoko linea elektrikoaren gainkosta zenbatekoa izan den, baita galdu zen epaiketaren kostuak ordaintzeko kondeneren zenbatekoa.

Garcia de Acilu jaunak topografoak zenbat kobratu duen galdu du, eta Quintana andreak galdetu du ea mugarriak jarrita dauden.

Ruiz de Loizaga jaunak adierazi dio dagokien tokian daudela.

Quintana andreak galdetu du ea gastuetan sartu den jartzeko topografoaren faktura.

Ruiz de Loizaga jaunak ezetz adierazi du, baina jarriko direla.

Saenz de Ugarte andreak adierazi du gaiaren inguruko informazioa eskatzen duela, eta ez dagoela modu horretan erantzuteko arrazoia, gardentasun kontua delako.

Partehartzaile guztiek gaiari buruz eztabaidatzen dute, baita bertaratu den publikoak ere.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du hark zailtasunak dituela gai jakin batzuei buruz galdetzeko, eta herritarrek egiten dizkioten eskaerei erreparatzen diela; zinegotzia den heinean, bere lana badela, eta galdetu behar duela non gastatu den diru hori, eta ikuskatu eta kontuak eskatu behar dituela. Eta hark, gobernu taldeko zinegotzia denez, eta sinadura eskuordetua duenez, gai guztiei buruz informatu behar duela, onak zein txarrak.

Quintana andreak galdetu du ea mugarriak jartzeak gasturik suposatuko duen.

Ruiz de Loizaga jaunak erantzun du, hasiera batean, ezetz.

Era berean, talde politiko horrek eskatu zituen datuak eman dizkiotela esan du.

Berriro ere, bertaratutako guztiek gaiari buruz eztabaidatu dute.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, adierazi du asteburuan ireki dela Ibernaloko landetxea.

Guardia zibilaren ondoko kaleko langak kendu direla esan du, eta zoriondu nahi izan ditu gai horretan lan egin duten guztiak.

Ikastolako estatutuak argitaratzeke daude, eta maiatzaren erdialdean epea bukatuko dela uste du.

Futbol zelaiari buruz, gaurdanik lizitazioa irekita dago, eta hilabeteko epean kontratazio-mahaia bilduko da, eta adjudikazioa apirilaren 11ko osoko bilkuran izango da, seguruenik.

2016ko kontuen itxierari buruz, hurrengo hilean azalpen gehiago emango dira, baina aipatu behar da 1.535.000 euro bildu direla eta 1.352.000 euro gastatu direla. Zehaztu behar da ez dela kenketa hutsa, besterik ez; baizik eta, finantza doikuntza egin behar dela, bereziki proiektuetan, baina emaitza positiboa izan dela.

Une horretan, aterpetxearen bigarren faseko aurreproiektua aurkezten da.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkateak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; Quintana andreak galdetu du ea zergatik ALHAOn argitaratu den udal aurrekontuaren zenbatekoa ez da osoko bilkura onartutakoa.

Muñoz jaunak eta idazkari jaunak adierazi diote puntu horiek egiaztatuko direla, baina aldea izan daitekeela aterpetxeko proiektuko diru-sarreraren kontzeptuetan. Izan ere, zati bat baliabide propioekin finantzatu zitekeen. Baina hurrengo osoko bilkuran argituko da.

Garcia de Acilu jaunak adierazi du gardentasun atarian lanean ari direla, baina, hala ere, hutsa dagoela.

Idazkari jaunak aipatu du lanean ari direla, eta zenbait atal itzulpenaren zain daudela.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko bederatzi eta hogeitun minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.